




BURUTASUNAK

Mingaña dala-ta...



ENGO idazlan txiki baten azaldu neutzuzan, irakurle, gure mingañaren kalteak. Oso ezi-gatxa zala niñotzun; alan be oso-osoan ezi-gatxa ez. Geuk asmo sendoaz gura izan ezkerro, kaltegiñe au menderatu geinke, ta bide

zuzenetik zear ibili-azo.

Miña esiz inguratu bear dozu, solo ta sagastiak esitu oi diranez. Ez yatzu, egia esan, ereza izango; baña arlo zalari oratu ta bururatzean, ortxe daukazu egin-egiñean be irabazpiderik txalogariena.

Gauzak bear diran lez eta arin eroateko guramen sendoa nai ta naiezkoa da. Zirt-zarteko gizona ba-zara, aurean jarten yatzun edozein eragozpen kemenez goitu ta mendi-gararaño igongo dozu; gogo-jausi, ego-batarako ta ila ba-zara, ostera, zureak egin dau: etzara eze-tarako.

Ekin, iñoiz be eten barik, miña ezteari; zoli-zoli

oretantxe arlotu zaite, ta zure mingain ori laster ezta basa-zekor ikotilaria izango, mendeko ta olzana baño. Gabetik goizera ezlozu, zagoz ziur, esiko apurka-apurka hai, oster. Gorbei-gañera be ameneko batean ezta elduten: aspertu barik ekin eta ekin ezker, mendigoizale nagi-samarak be erpiñeko aizea arnasten dakuskuz saritan. Gure nekazariak, pitinga - pitinga, golde ero zorotzagaz lur-arlo dana azpikoz - gora itzultzen dabe.

Ezi mingain ori, ta zure aoa, Esakunak diñoskue-
nez, biziltz-ituri izango da; ur gardena, zidar-margokoa emongo dau. Biotz - zauriak osatuko ditu, naigabeak axatu, betondo kiskurak argitu. Zura ta gozoa izan zaite izketaldietan, eta maitagarri egingo dozu, ustekabean zeure buru ori.

Ona Paul deunak zer diñoan: «Zure elea (berbetea) adiguritsu ta gazitua izan bedi». (Kol. IV, 6) Eta Antselma doneak: Gatza batez be, jatekoetan erabili daroagu. Gatza emoten yaken janariak gozo biurtzen dira; okela gatzatua eztau arak jolen. Zure izketea beste ainbeste bite; adi daukazuzanentzat janari gozo. Jakituri-ezak ezpei gezatu, itz zanlar eta guzur ustelkoak bez, jakituriz, zurtasunez ta egiz goza baño.

Berba lañegi egitea ezta ondo, itz-zapañadeak kalte asko dakaz-eta. Bear danean mintzatu; baña, bearizan ulsean izan ezik, aoa iztea obeto. Zeure biotzeko ate-leioak saratu ezpa dagizuz, itzali egingo yatzu gogo-bizitza. Aizetan dagoan argiari ba-dakizu zer jazoten yakon: aida baten amatau. Arduraz ezpa-zabiltz, argiarena jazoko yatzu zuri be.

Bateren batek iraindu aren, ez egizu ezpanik uratu, suari putz-emoka asiko zintzakez-eta. Ona emen etxean gerta oi dana: aurez-aure aukitzen diran ate bi zabalik ba-dagoz, ta aizerik ibil ba-dabil, bata beintzat berealakoxe baten itxi egiten dabe.


Gizon sumenkoakaz sari aurkitzea ba-leiteke; abagune areitan ba-dakizu, ba, zer egin. Ate bi diran bestean zabalik dagozala esan geinke; aren aoa ta zurea.

Bata itxi ezkerro, aizeak ez dauko biderik, ez dauko iri-
kitu ta igaro unerik. Olakoakaz zuña izan zaite; au ta
bestea esanaz damutu etzaitez, itzak, olekariak dagie-
nez, negurtu ondo, biritan oba.

Ixilik egotea askozaz be oba da. Jagoba bialduak
diñosku: «Gizadi guztiak bitez azkar entzuteko, uzkur
itz-egiteko». (Jak. I, 19) Seneka argiak be durundutsu
egiñiko esana dau: «Tacere quisquis nescit, hic nescit
loqui»; Ixil egoten eztakianak itz-egiten eztaki.

Ixil egotetik ez datorkikezu kalterik, batu-banetu
ibilletik zuk uste baño geyago. Len esan neutzunez, lotu
egizu, ba, mingain ori; bear danean bakañik azkatu, ta
orela, esanagaz egundo be etzara damutuko. Dagokio-
nez, Jauna goresten erabili egizu, ta merezi dozun saria
lurean eta zeruan daukakezu.

IGOTZ



Eroma'tik bari pozgari bat eldu yaku:

Lendik Benevento'ko Gongotzaña izan dan
Adeodata Aba, Karmeldar Oñutsa, Aita Santuak
Lotazila'ren 16'an Venecia'ko Gongotzain egin dau.
Beronek 51 urte daukoz.


Karmen'go Amaren seme argi oneri zorionak
damotsaguz.

Bata lxi ezkerro, aizeak ez danko biderik, ez danko iri-
kitu ta igaro unerik. Olakoakaz zuia izan zaite; au ta
beste esanaz damutu ezaritezan, izak, olekariak dagie-
nez, negartu ondo, biritan oba.

Ixlik egotea askozaz be oba da. Jagoba bialduak
dinoskur: «Gizadi guztiak bitez azkar entzuteko, uzkar
iz-egiteko». (Jak. I, 19) Seneka argiak be durundatsu
eginiko esana dau: «Tacere quisquis nescit, hic nescit
loqui»: Ixli egoten ezlakianak iz-egiten ezlaki.

Ixli egotetik ez datorlkezu kalterik, batu-banetu
ibilletik zuk uste baño geyago. Len esan neutzunez, lotu
egizu, ba, mingain ori; bear danan bakarik azkatu, ta
ofela, esanagaz egundo be elzara damutuko. Dagokio-
nez, Jauna goreslen erabili egizu, ta merezi dozun saria
lufean eta zerruan dantlakezu.

Igortz



Etromatik bari pozgari bat aldu Yaku:

Lendik Benevento'ko Gongolzana izan dan
Adeodato Aba, Karmeldar Oñutsa, Aita Santuak
Lotaziaten 16'an Venecia'ko Gongolzain egin dau.
Beronek 51 urte daukoz.

Karmen'go Amaren seme argi oneri zorionak
damotsaguz.



EGURALDIA

Eguraldia aufetik ezagutuko ho
Zentz ezegutu ez arien
rako airea (eguratza)
keta)batzuk esar

dan

Gu bizt garen lur-gain guztian, guk amasar
eguratza (airea) dago. Dabilen eguratza edo
zea deritxo.

Arnasa artzen dogun eguratzean (airean)
eta ke pilin bat dagoz: Oxigeno asko ta Nitroge
go. Eguratza (airea) mendi tonlotarano be
100 kilometro mendiak ba legoz, euron tonlot
ratsik ez-iltzake egongo. Gaitera neuriz, egurat
uritutz doa ta 3 kilometroko mendietan burutk
biotzeko miña izaten dira: 8 kilometroko n
arnasarik ezin artu ta gorago il egin bear.

II

Eguratzairen (airearen) pixua

Airea, uste ez izan arien, astuna da: aireak p
ko, ba. Ontziak, urez bele dagozanean, ntsik dag

(1) Efi batzuetan airea ta beste batzuetan eguratza esaten yak
eta airea gaurta bat esan gura dau, ba.